

07 MAIATZA

Asteartea

01

Asteazkena

02

Osteguna

03

Ostirala

04

Larunbata

05

Igandea

06

Astelehena

07

Asteartea

08

Asteazkena

09

Osteguna

10

Ostirala

11

Larunbata

12

Igandea

13

Astelehena

14

Asteartea

15

Asteazkena

16

Osteguna

17

Ostirala

18

Larunbata

19

Igandea

20

Astelehena

21

Asteartea

22

Asteazkena

23

Osteguna

31

Asteazkena

30

Asteartea

29

Astelehena

28

Igandea

27

Larunbata

26

Ostirala

25

Osteguna

24





HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO EUSKARAREN ERABILERA NEURTU DA

€A€ko herri-administrazioetako euskararen erabilera aztertzen duen ebaluazio-txostena aurkeztu du HPSk

€A€ko euskal herri-administrazioetako euskararen erabilera normalizatzari Euskararen Legearekin ekin zitzaion. Lege horrek jasotzen ditu, besteren artean, administrazioarekiko harremanetan herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideak eta botere publikoek euskararen inguruan dituzten betebeharrak. Lege hori garatzeko asmoz emandako dekretuek administrazio elebiduna sortzea ekarri zuten. Araubideak, besteak beste, funtsezko bi kontzeptu sortu zituen: hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-indizea.

Hizkuntza-eskakizunak lanpostu baten zereginak eta eginbeharrak euskaraz bete ahal izateko beharrezko gaitasun-maila zehazten du. Lau hizkuntza-eskakizun zehaztu dira, hau da, lau gaitasun-maila.

Derrigortasun-indizeak, berriz, derrigorrez hizkuntza-eskakizuna izango duten lanpostuen portzentaia adierazten du. Indize hori udalerrri edo eskualde bakoitzaren euskararen ezagutza-mailaren arabera da.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 1997ko Herri-administrazioetan euskararen normalizazioa arautzen duen Dekretuak xedatutakoaren haritik, administrazioek emandako datuetan oinarrituta, euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren "III. Plangintzaldiaren (2003-2007) balorazio-txostenaren aurrerapena" egin du.

Ibilian-ibilian, €A€ko herri-administrazioek bide luzea egin dute azken 17 urteotan, euskararen erabilera normalizatzari dago-kionez. Aurten bukatuko da, esate baterako, hirugarren plangintzaldia. Hori dela eta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak balorazio-lanari ekin dio. Behin betiko ebaluazioa abenduaren 31 arte prest izango ez bada ere, III. Plangintzaldiaren ebaluazioaren aurrerapena da Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluek aurtengo apirilaren 3ko batzarrean ezagutu eta aztertu duena. Agiri hau laguntza handikoa izango da laugarren plangintzaldia (2008-2012) prestatzeko garaian.

01 AZTERGAIK ETA ITURRIAK

Administrazioan euskararen erabilera zertan den jakiteko bi iturri erabili ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Alde batetik, hizkuntza-eskakizun betetze-mailari buruzko informazioa eskuratzeko HPSren datu-basea erabili da, eta, bestetik, guztiz berria den tresna bat: administrazio guztietarako balio duen galdetegi, beren-beregi ebaluazio honetarako prestaturikoa. Nobedade hori garrantzitsua da. Izan ere, administrazio bakoitza diferentia dela kontuan izanda eta mota bereko administrazioen artean ere guztiek gisa bereko euskara planik ez dutela, orain arte administrazio-mota bakoitzeko egiten ziren ebaluazioak. Guztientzako baliagarri eta aplikagarri den galdetegi bat osatu dute, eta horrek aukera ematen du herri-administrazio guztietan euskararen erabilera dagozkion hainbat helburu zein neurritan bete diren jakiteko, bai eta betetzerakoan zer-nolako arazoak azaltzen diren ezagutzeko ere. Galdetegi horrek aintzat hartzen ditu, gainera, erabilera-plan egituraturik izan ez arren, euskararen erabilera aldeko urratsak egin dituzten erakundeak.

Nobedadea da, halaber, ebaluazioa kuantitatiboa eta kualitatiboa izatea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ez du zenbaki hutsetan geratu nahi izan, eta azterketa kuantitatiboa ez ezik, kualitatiboa (zailtasunak, gabeziak...) ere egin du. Horretarako zenbait lan-talde osatu ditu: langileena (lurraldeko bat), hizkuntza normalizatzeko teknikari eta adituena eta ardura-dun politikoena (alderdi guztietakoa).

02 EGUNGO EGOERAREN EBALUAZIOA

Euskararen erabilera sustatzea izan da, eta da, HPSren helburu nagusia. Ezagutzari dagokionez, azken urteetan aurrerapen handia izan da. Derrigortasun data igaro zaien lanpostu gehienak dagokien hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa egiaztatuta duten langileen esku daude jadanik. Dena dela, hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila ona izan bada ere, egiaztatzeak ez du ezinbestean erabilera bermatzen.

Oro har, erabilera-planek erantzun ona izan dute erakundeetan eta nahikoa hedatu dira. Azken hamarkadan aldaketa nabarmena gertatu da alde horretatik.

Halere, hainbat erakundek oraindik ere ez du plana egin, baina horietatik ehuneko altu batek epe laburrean egingo duela adierazi du. Batez ere, udalerririk txikiak dira, hain zuzen, baliabide gutxien dituztenak, plana definitu gabe dutenak. Eta, kasu askotan, lehendik ere euskaraz jarduten dutenak dira, ahoz behintzat. Gainera, kontuan izan behar da hartu direla euskara sustatzeko neurriak, erabilera planik izan ez arren. Normalizazio-ekintzak egiten dira, plan egituratu baten barnean ez baldin bada ere. Beraz, oro har, erabilera-planen erantzun-maila ona da. Euskara-planak definitu dituzten arren, jarraipena erabat bermatu gabe dago. Erakunde guztiek ez diote planari jarraipenik egin, gehienetan baliabide ezagatik.



Erakundearen inguruko errealitate soziolinguistikoa nolakoa, halakoa bertako euskararen erabilera. Badirudi egoera soziolinguistikoa lotua dagoela euskararen erabilera; izan ere, egoera soziolinguistikoa aldekoa duten entitateetan emaitzak oso onak dira. Gipuzkoan erabiltzen da gehien euskara, udalik txikienetan eta derrigortasun-indizearik altuenetan. Bizkaian erabilera-maila baxuagoa da, eta Araban dago indize baxuena.

Nahiz eta erakundeen hizkuntza-paisaia eta kanpo-proiektzioan euskararen erabilera altua izan, adierazi behar da sortze-hizkuntza gaztelania dela batez ere. Normalki itzulpenetara jotzen da, eta %10-20 soilik sortzen da euskaraz. Kanpora begirako harremanetan euskararen erabilera nahiko altua bada ere, barne-harremanetan gaztelania da nagusi. Horretan zerikusia du erakunde gehienek kanpora begirako harreman ofiziala lehenetsi izanak. Euskara askoz gutxiago erabiltzen da ahoz jardutera-koan. Oro har, euskararen erabilera erakundeen hizkuntza-paisaia eta kanpo-proiektzioan dago bermatua, batez ere idatzizkoan. Hala ere, horrek ez du esan nahi euskara lan-hizkuntza denik; izan ere, itzulpenetara jotzen da askotan euskarazko hedapen hori bermatzeko.

JOKIN AZKUE,
Herri Administrazioetan
Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria

Etorkizunerako lan ildoak aztertzen

1. Euskararen erabilera sustatzeko komunikazioak garrantzia handia duela irakur dezakegu III. Plangintzaldiko balorazio-txostenaren aurrerapenean. Zer komunikazio-motaz hitz egiten ari gara?

Bi eratako komunikazio-beharrez ari gara: gizartean oihartzuna izango duen komunikazio-plan orokorraz eta erabilera-planen gaineko komunikazio zehatza lantzeaz.

Lehenengoaren helburua bikoitza da: alde batetik, herritarra bereak dituen hizkuntza-eskubideez jabetzea; eta, bestetik, Administrazioako langileak ere euskararen erabileraren gainean sentsibilizatzea.

Bigarrenaren helburua erakundeko erabilera-plana hedatzea da, erakunde barruan eta erakunde horretara jo dezaketen administratuen artean, Administrazioa jotzen dutenean argi izateko hizkuntzen erabilerari dagokionean zein aukera dituzten.

Era berean, komenigarritzat ikusten da euskara-erabiltzearen aldeko diskurtsoa jorratzea, erabilera-planen gaineko komunikazio zehatza landuz.

2. Hizkuntza baten ezagutzak ez du erabilera ziurtatzen. Zein irizpide ezarriko dituzue erabilera sustatzeko?

Hala da, nahiz eta datuak erakusten duten ezagutza inoizko handiena dela, ezagutzak ez dakar beti erabilera eta, are gutxiago, neurri berean. Horregatik, arlo horri heldu beharra nabarmendu dute lan-taldeetan, eta nik orain horien berri emango dizuet. Horretarako oinarrietako bat hizkuntza ofizialen erabilera-irizpideak ezartzea izan daiteke: zerbitzu-hizkuntza denean nola jokatu, lan-hizkuntza denean nola, kontratazioetan zer izan kontuan... Erakunde batzuetan definituta daude dagoeneko, baina ez dira beti ezagutzen erakunde horietako sail guztietan. Beraz, irizpideak finkatzea bezain garrantzitsua izango da horiek erakundeetan hedatzea. Eta aurrera begira, gainera, zaindu egin beharko da ezartzen diren hizkuntza-irizpide horiek betetzen ote diren, hau da, jarraipen-mekanismoak ere aztertu beharko dira.

Irizpideen artean bada bat zeresan franko eman duena: itzulpen-politika. Diagnosiak erakusten du, gaur egun, itzulpenak bermatzen duela, besteak beste, hainbat dokumentu euskaraz kaleratzea. Etorkizunera begira, erakunde bakoitzak politika horren gaineko hausnarketa egin beharko luke. Izan ere, helburuak, apurka-apurka bada ere, itzulpen-kopurua gutxitu eta euskaraz sortzea beharko luke izan, eta, era horretara, euskara lan-hizkuntza bihurtzea, Administrazioaren esparruan behintzat.

Bestetik, langileak gaitu beharra nabarmendu dute lan-taldeetan, euskaraz lanean has daitezten: ikastaroak antolatu; trebakuntza-saioak, alegia, laneko zereginei lotutako trebatze berezitua.

Baliabideak ere premiazkoztat jo dituzte, langileen esku dagoeneko jarrita daudenei gehitzekoak.

3. Batzuen ustez, hizkuntza-eskakizunen sistemaren mailak ez dira behar bezain egokiak herri-administrazioetan. Zer deritzozu?

Hala da, diagnosiak hobetzeko hainbat arlo identifikatu dira hizkuntza-eskakizunen sistemaren gainean eta eskakizun horiek egiaztatzeko prozesuaren gainean. Eta, ondorioz, hobetu beharreko arlo dezente proposatu dituzte lan-taldeetan. Horiexek aipatuko dizkizut azal-azaletik:



Batetik: sistema bera: zenbait kasutan, hizkuntza-eskakizunen mailak berraztertzea proposatu dute. Bigarren: prestakuntza-arloan, berariazko prestakuntza lantzea. Hirugarren: egiaztapen-sistema dela-eta, batik bat, laugarren hizkuntza-eskakizuna eta agiriaren balio-kidetzat lantzeko premia ikusi dute.

4. Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997 Dekretua aztertu da balorazio txosten honetan. Zenbaitek egokitzapenik egitea proposatu du, zeintzuk dira aldatu beharreko arloak?

Bai, diagnosiak garbi geratu da 86/1997 Dekretua garrantzitsua dela marko orokor eta oinarri gisa, baina, zuek esan bezala, zenbaitek egokitzapenak egitea proposatu du zenbait puntutan, esaterako: derrigortasun-indizearen egokitasuna aztertzea proposatu dute eta derrigortasun-indizea baxua den guneetan, agian, beste era batera jokatu, ez baitago, zenbaitetan, lanpostu bakar batean ere derrigortasuna jartzerik.

Dekretuaren eremua zabaltzea ere proposatzen da. Horretarako bide bat izan liteke herri-administrazioek egiten dituzten kontratu administratiboetan Dekretuaren neurriko hizkuntza-helburuak eta -irizpideak kontuan hartzea.

5. Euskararen erabilera-planak kudeatzen dituztenek asko nabarmendu dute euskararen erabileraren normalizazio arloan koordinazio eta elkarlanerako gune baten beharra dagoela. IV. Plangintzaldira begira arlo honetan zerbaitek egiteko asmoa duzue?

Bai, aspaldi ari dira gune baten beharra aldarrikatzen; alegia, euskararen erabileraren normalizazio arloan koordinazio eta elkarlanerako gune baten beharra. Hau da, harreman sare bat izatea: zalantzak argitzeko, formazioa bideratzeko, materiala eta esperientzia berriak trukatzeko...

Gune horretan partaidetza eta eraginkortasuna uzartu beharko liriateke. Erakunde asko eta iritzi asko, denek egon beharko lukete ordezkatuta. Era berean, iraungo badu, gune eraginkorra izan beharko du.

Eta, bai, behin eta berriz agertu diguten gaia izan da, eta etorkizunera begira aztertuko dugu.

6. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eginkizunen gainean iritzi ezberdinak jaso dira. Zeintzuk dira iritzi horiek?

Bai, iritziak jaso dira, bai. Esan dezakegu, gainera, udalen tamainak baldintzatzen duela iritzia. Hara, udalik txikienek laguntza eta aholkularitza eskatzen dute erabilera-planak definitu eta ezartzeko, uste dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak erakundeen arteko koordinazioa ere sustatu beharko lukeela. Erakunde handiagoetan, ordea, malgutasuna eskatzen dute bakoitzak bere bidea urra dezan, zenbat eta baliabide gehiago: autonomoago eta laguntasun premia txikiagoa sumatzen dute.

Azkenik, zenbait erakundek herri-administrazioetako eredu bilakatzea eskatzen diote Eusko Jaurlaritzari, euskararen erabilerak aurrera egin dezan Administrazioan. Eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatzen zaio erakundeen arteko elkarlana bultzatzea.

euskararen Berripapera

HIZKUNTZA POLITIKARI BURUZKO HITZARMEN HISTORIKOA BERTSIO DIGITALEAN

Euskararen Berripaperaren apirileko zenbakiak Euskadi, Katalunia eta Galiziako gobernuek, hizkuntzen berdintasun sozial handiagoari begira, berezkoak dituzten hizkuntzak biziberritzeko eta haien erabilera normalizatzeko xede duten lankidetzak hitzarmenaren berri eman zuten. Oraingoan, beriz, <http://www.euskara.euskadi.net> atarian ikusgai dago itun honen bertsio digitala. Bertan, hizkuntza politikari buruzko hitzarmen orokor honen nondik norakoak eskaintzen dira, hala nola, jasotzen diren estipulazioak eta adosturiko puntuak.




HPS-REN 2006KO JARDUERA-TXOSTENA ESKURA EUSKADI.NET-EKO ATARIAN

2005-2009 legealdian zehar garatu nahi dituen lan-ildo edo konpromiso nagusiak aurkeztu eta urtebetetera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2006ko jardueraren txostena eman berri du argitaratu. Bertan, besteak beste, urte horretan zehar euskararen erabileraren erronkaren inguruan burutu diren ekimen behinenak zehazten dira. Txosten hori ikusgai dago <http://www.euskara.euskadi.net> helbidean.



EUSKARA BULTZATZEN DUTEN ELKARTE ETA ERAKUNDEEN DATU BASEA SAREAN

Euskararen erabilera bultzatzen duten elkarten eta erakundeen berri jakin nahi izanez gero, baduzu nora jo eta non ikusi. Hori eta gehiago, <http://www.euskara.euskadi.net> atarian duzu. Bertan, beren-beregi euskara sustatzea helburu zuzena ez izan arren, euren zerbitzua euskaraz edo behintzat ele bitan eskaintzen dutenak aurki daitezke.



Erakunde eta elkarte hauek jardun-eremuka daude antolatuta. Horrela, aisialdia eta kirol arloan dabiltzanak, gizartearen erabilera sustatzea helburu nagusia dutenak, helduen euskalduntze eta alfabetatzean dihardutenak, teknologia berrien alorrekoak edota kultur jardueren esparrukoak aurki daitezke, beste batzuen artean. Era berean, kokapen geografikoaren (udalerría, lurraldea...) edota erakundearen izaeraren (publikoa ala pribatua) arabera ere egin daitezke bilaketa. Esparru horietako bakoitzaren barruan ere azpi arloak daude, bilaketa zehatzagoa izan dadin.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística